



DYAren ikastaroak gaur eta larunbatean



Larunbatean suspertze tailerra familian egin ahalko da.

Larrialdi eta istripuen aurrean zer egin edo ez egin azalduko dute hitzaldian

J. ARANBERRI USURBIL.
Jueves, 7 marzo 2019, 00:20

0

Ongizatea eta Osasuna sustatzean egiten duen lanaren barruan, DYAk Irakaskuntza Eskolak gaurko eta larunbaterako pertsona orori irekiak dauden hainbat jarduera antolatu ditu.

Gaur arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, larrialdien edo istripuen aurrean zer egin eta zer ez egin jakin nahi dutenei zuzendutako doako hitzaldia izango da. Bertan hainbat gai tratatuko dira. Horien artean itolarriak, zauriak, erredurak, traumatismoak, bularreko minak, isurketak, garuneko tronbosiak, konbultsioak, konorte galerak... izango dira.

Larunbatean, berriz, «Bihotz-Biriketako Suspertze tailerra Familiar», eskainiko du DYAk 17.00etatik 19:00etara.

Helduak (aita/ama, aitona/amona, osaba/izeba...) guztira 6 urtez gorako hiru umeekin eman dezake izena, eta 2 orduetan, eta modu erraz eta praktikoa batean, bihotz-geldialdi bat identifikatzen eta honen aurrean jokatzeko ikasten dute. Gainera, etxeko txikienekin aldarre ona pasatzeko aukera paregabea izan daiteke.

Lantegiaren kostua 8 eurokoa izango da helduentzat eta doakoa 17 urtez beherako guztientzat. Lekuak mugatuak dira, emandako prestakuntzaren kalitatea bermatzeko. Jarduerak euskaraz emango dira eta DYA Ordezkaritzan izango dira, Muna Lurra kalea, 26 Usurbil.

Izena eman edo informazio gehiago beharrez gero, deitu 943 46 46 22ra edo sartu www.DYAgipuzkoa.com.

La mejor selección de noticias en tu mail

Recibe las principales noticias, análisis e historias apuntándote a nuestras newsletters

Apúntate

Lo + leído

El Diario Vasco

Costa Urola

[Top 50](#)